

BALIO PROPOSAMENA

- **Ze behar edo arazo konpontzen duzue? Zerk bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Azken urteotan, arazo larria jasaten ari gara ingurunean. Milaka arrazoiren eskutik izugarrizko igoera izan du kutsadura tasak, eta hau geroz eta gehiago haziko dela argi ikusten da. Produktuei dagokienez, hauen garraioak ere izugarri kutsatzen du, batez ere oso urrutiko produktuak honaino ekarri behar dituzten produktuetan. Nahiz eta hauek naturan duten eragin txarra nabarmena izan, bezeroak erosotasunari erreparatzen diote gehien bat, eta supermerkatu edo edozein web orrietan erosteko erraztasun gehiago dago, KM 0ko produktuak erosteko baino. Esaterako, bertako nekazaritza produktuak lortzeko astean behin antolatzen diren merkatu batera edo frutadenda txikietara jo beharko genuke. Produktu horietan nabarmenenak barazki, fruitu eta produktu naturalak dira.



Gaur egun, milaka nekazaritza produktu erosten dira kontsumituko diren tokitik milaka kilometrotara ekoiztu direnak, eta transporte bidai luzeak eskatzen dituztenak. Hori dela eta, kutsadura handitzen ari dela alde batera utziz, nekazariari geroz eta jende gutxiagok erosten dizkie haien produktuak eta gehienek bizitza bertan irabazitako diruak baldintzatzen du. Bestetik supermerkatuetan erositako produktuak ez dakigu nondik datozen, ezta naturalak diren edo ez. Bertako nekazariak saldutakoak, berriz, badakigu nondik datozen baita zein naturaltasun duten. Hori dela eta, bertako produktuak erosteari garrantzia eman behar diogu.

Hau sustatzeko, aplikazioa sortzeko ideia izan dugu, non bertako nekazariak bertan ekoizitako produktuak saltzeko aukera izango duten eta bezeroek bertako produktuak modu erraz batean eskuragarri izateko aukera izan dezaten, etxetik mugitu gabe eskaera egin dezaketela kontuan izanda. Honela, produktu hauek erosteko erosotasuna dela eta, produktu hauen kontsumoa handitu eta kanpotik ekoizita datozen produktuen salmentan murrizketa emango da.

Honek hainbat onura ekarriko ditu. Batetik, garraioen erabilpenak eragiten duten kutsadurak ere murrizketa nagusia izango du, produktu hauek ez baitira ekarri beharko. Beraz, erraz eta ingurumena zainduz erosteko modurik egokiena izango da. Aplikazio bat sortzeak etxetik eskaera egiteko aukera ematen duelako, mugitu beharrik gabe eta hau guztiz eroso da bezeroentzat. Bestetik, lokal bat izateak dituen kostuak ez ditugulako jasan behar. Gu besteengatik bereizten gara, bezero orok jakingo duelako nondik datorren bere produktua, baita nork ekoiztua eta nola zaindua izan den. Bestetik, guztiz naturala izango dela ere ziurtatuko du bezeroak aplikazioaren bitartez. Aplikazioan bertan, bezeroei egindako eskaerari buruz beraien iritzia emateko aukera emango zaie, eta beste bezeroak bertara sartzean besteen iritzia irakurtzeko aukera izango dute.